

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLAREN SAILA

Hezkuntza Zerbitzua

Ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek (IGEEK) antolatutako opor-jardueretarako (13. ildo) diru-laguntzak ematea eta ukatzea

Gurasoen elkarteek antolatutako opor-jardueretarako (13. ildo) emango eta ukatuko diren diru-laguntzak erabaki ditu tokiko gobernu-batzarrak, 2017ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-renak, 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan ezarritakoa betez, honako hau argitaratu da, informazioa emateko xedez:

Ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteek antolatutako opor-jardueretarako (13. ildo) diru-laguntzak ematea eta ukatzea.

2017ko ekainaren 16an argitaratu ziren ALHAOn gurasoen elkarteek antolatutako opor-jardueretarako (13. ildo) diru-laguntzak emateko deialdia eta deialdi hori arautzen duten oinarriak, 2017ko ekainaren 2an tokiko gobernu-batzarrak egindako ohiko bilkuran onartutakoak. Deialdiaren laburpena 2017ko ekainaren 16an argitaratu zen ALHAOn, eta data horretatik aurrera hasi zen zenbatzen eskariak egiteko epea.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Gasteizko Udaleko diru-laguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzak ezarritakoa betez eta 2017. urterako Gasteizko Udaleko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan (tokiko gobernu-batzarrak 2016ko abenduaren 29an onartua) jasotakoarekin bat etorrira, balorazio-organoa elkartu da, eta, aipatutako deialdi horretan egin diren eskariak kontuan hartuta, diru-laguntzak emateko eta ukatzeko proposamena egin du.

Indarrena dagoen gastuen aurrekontuan, Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Sailaren 2017ko Udal Aurrekontuko 2319 02 3261 48001 kontu-sailean, zehazki, nahikoa diru-izendapen baidagoela kontuan hartuta, tokiko gobernu-batzarrak 2016ko maiatzaren 24an eskumenak eskuordetzeari buruz hartutako erabakiaren bertutez, Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Saileko zinegotzi ordezkariak honako proposamen hau egin du, tokiko gobernu-batzarrak azter dezan:

Akordioaren proposamena

Lehenengoa. Aipatutako ikastetxeetako gurasoen elkarteek diru-laguntzak onartzea, 2017ko ekitaldiari dagozkion opor-jardueretarako, honako zenbateko hauekin:

IGE / IKASTETXEA	ZENBATEKOA
AMPA CEIP Abendaño HLHI GE	2.993,18 euro
AMPA CEIP Angel Ganivet HLHI GE	812,49 euro
AMPA CEIP A. López de Guereñu HLHI GE	852,93 euro
AMPA CEIP Arantzabela HLHIGE	1.026,97 euro
AMPA CEIP Errekabarri HLHI GE	1.039,27 euro
AMPA CEIP Ibaiondo HLHI GE	1.165,85 euro

IGE / IKASTETXEA	ZENBATEKOA
AMPA CEIP Lakuabizkarra Ikastola HLHI GE	1.942,39 euro
AMPA CEIP Luis Dorao HLHI GE	2.380,89 euro
AMPA CEIP Luis Elejalde HLHI GE	1.144,76 euro
AMPA CEIP P. Ignacio de Barrutia Ikastola HLHI GE	824,80 euro
AMPA CEIP Salburua HLHI GE	2.045,61 euro
AMPA CEIP Tokieder Ikastola HLHI GE	3.356,08 euro
AMPA CEIP Umandi Ikastola HLHI GE	1.301,22 euro
AMPA CPI Ikasbidea Ikastola IPI GE	898,63 euro
AMPA CPEIPS Armentia Ikastola HLBHIP GE	1.030,48 euro
AMPA CPEIPS Calasanz HLBHIP GE	1.545,08 euro
AMPA CPEIPS Corazonistas HLBHIP GE	4.611,79 euro
AMPA CPEIPS Inmaculada Concepción HLBHIP GE	728,11 euro
AMPA CPEIPS Olabide Ikastola HLBHIP GE	3.946,76 euro
AMPA CPEIPS Paula Montal Escolapias HLBHIP GE	835,34 euro
AMPA CPEIPS Presentacion de Maria HLBHIP GE	4.805,69 euro
AMPA CPEIPS San Prudencio HLBHIP GE	879,29 euro
AMPA CPEIPS Santa María Marianistas HLBHIP GE	8.821,20 euro
AMPA CPEIPS Urkide HLBHIP GE	4.301,88 euro
AMPA CPEIPS Veracruz HLBHIP GE	708,77 euro
Guztira	53.999,46 euro

Bigarrena. CPEIPS Mercedarias HLBHIP ikastetxeak eskatutako diru-laguntza ukatzea, epez kanpo egin baitu eskaria.

Hirugarrena. Diru-laguntzaren zenbateko osoa ordainketa bakarrean ordainduko da, diru-laguntza eman dela jakinarazten den unetik gehienez ere bi hilabeteko epean, Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Sailaren Udal Aurrekontuko 2319 02 3261 48001 aurrekontu-sailaren kargura.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik zenbatzen hasita; edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da erabakia hartu duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik zenbatzen hasita; eta ebazpenaren berariazko edo ustezko ezespenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita; edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ebazpenaren ustezko ezespen hori gertatzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Gasteizen, 2017ko urriaren 16an

Kultura, Hezkuntza eta Kirolaren Saileko Administrazio Kudeaketako burua
NIEVES DÍAZ DE CORCUERA DÍAZ